

**JOSE LUIS BERASATEGI:
"LERA LASTERKETEI ESKER IRAUN DU TXAKUR
NORDIKOAREN ARRAZAK"**

Estitxu eta Ixiar Eizagirre

Argazkiak: Jose Luis Berasategi



Jose Luis Berasategi mendian bere txakurrekin

"Han eta hemen, txakurrak hanka hutsik" esaten zen lehenago. Gaur krocketak jaten ikusiko dituzu, edo Tilosetan pote bat hartzen, edo igandeetako orrazkerarekin Kale Nagusian paseatzen. Baina txakurren berri inork badaki, hori Jose Luis Berasategi da, Orkolaga kaleko "Bitxos" animalia dendako nagusia. Jose Luisek txakurrekin elurretan gozatzen du gehien. Txakurrak lerari lotu eta zeharkaldiak egiten ditu mendian barrena; tarteka lasterketetan parte hartu ere bai.

Lera-txakurren kirol honi "mushing" deitzen zaio, eta zerbait gehiago jakin nahita, eskarmentua duenarengana jo dugu.

- **Jaio: Bilbon, 1966an.**
- **Hernanin bizi da, duela 7 urte etorrita.**
- **Orkolaga kaleko "Bitxos" animalia dendako nagusia da.**
- **Lera txakurren kirolean edo "mushing"-ean 1989an hasi zen, espainiar estatuan kirol honetan hasi zen lehenengoetakoa da bera.**
- **Lera txakurrekin zeharkaldiak egiten ditu, Benasque aldean batez ere. Gehienetan bakarrik joaten da.**
- **Lasterketak: zazpi alditan parte hartu du "Pirena" lasterketan, eta Espainia eta Europako txapelketetan ere parte hartu izan du, baita lasterketa partikularretan ere (batez ere Nafarroa, Madril, Aragoi eta Asturiaskoetan).**

Nondik dator lera txakurren edo "mushing" kirola?

Kirola Estatu Batuetatik dator, Alaskatik. Mende hasieran epidemia bat zabaldu zen, eta "Iditarod" izeneko herri isolaturaino umeentzat sendagaia txakur leren bidez garraiatu zuten. Ekintza haren omenez lasterketa bat jokatzeko hasi zen, egungo "Iditarod" lasterketa famatua bihurtu dena. Kirol hau, AEB eta Kanadan asko zabaldu zen, eta gero Europara hedatu zen.

Kirol hau nola iritsi zen estatu espainiarrera?

Hona lehendabizi txakurrak heldu ziren, eta gerora sortu zen kirolarekiko zaletasuna. Jendeak, Estatu Batuetara lanera edo turismo egitera joanda, hantxe ezagutu zituen "Alaska Malamuten" txakurrak. Arraza honekin maitemindu zirenek, eta hona ekartzeko adina diru zutenek, hegazkinetan ekarri zituzten. Gero "Husky" txakurrak ekartzen hasi ziren, edertasun lehiaketetarako. Eta geroago, berriz, txakur hauekin kirola egin nahi genuenok hasi ginen txakurrok ekartzen.

Estatu espainiarrean lera txakurren kirolean hasi zen lehenengoetakoa zara zu. Nola sartu zinen mundu horretan?

Niri atentzioa eman zidana, lehenengoz, txakurrak izan ziren. Aldizkarietan ikusi, eta txoratuta utzi ninduten. Galdezka hasi nintzen, baina ez zegoen txakurrok eskuratzeko modurik. Lehenengo txakurrak Madrilen erosi nituen, edertasun lehiaketetarako erabiltzen zituzten "Husky" horietakoak ziren. Jabe batzuei ez zitzairen batere ondo iruditzen nik txakur horiek lera lasterketetarako erabiltzea, tratu txarra ematea zela iruditzen zitzairen, eta txakurrak desitxuratu egiten zirela.

Txakurrak erosita, madrildar eta asturiarrekin biltzen hasi nintzen. Hasieran ez genekien askorik, eta egiten genuena gauzak garraiatzea zen: gurpilak, kateak ... denetatik! Horietako madrildar bat albaitaria zen, eta bera hasi zen lerak fabrikatzen. Nire lehenengo lera hura eskuz egindako egurrezko bat izan zen, Frantzia egiten zirenei kopia. Gerora, elurrik ez zegoenetarako gurpil handiko trizikloen ideia inportatu zen Frantziatik.

Ereñotzuko borda batean 10 txakurreko taldea duzu. Nola entrenatzen dituzu urtean zehar?

Entrenamenduaren lehen zatia txakurrek giharrak egiteko da. Horretarako ez diezu korrika eginarazi behar, tira bakarrik egin behar dute. Ni balaztzen joaten naiz, pisua jarri eta ez diet batere laguntzen. Paseatzea da kontua, eta orduantxe gozaten dut nik gehien. Ibilaldiak egiten dituzu hemengo pistetan barrena: Añarbe, Leitzaran ... Elurrik egiten ez duenean lau gurpileko bizikleta bat erabiltzen dut. Hemen beroak estutzen duenean, gunee altuetara joatea beste erremediorik ez dago. Urbasa eta Opakua aldera jotzen dut gehienetan, ia gauero tenperatura jaitsi egiten baita toki horietan. Azaro aldera txakurrak sendo egoten dira, eta abiadura lantzen has zaitezke orduan. Eta hor hasten da niri gustatzen ez zaidan fasea: helburu batzuk markatu behar dituzu, denborak eta distantziak finkatu, elikadura zaindu, eta gainera "musherrak", nagusiak, ere korrika hasi behar du, lasterketarako batez besteko abiadura zaintzea garrantzitsua delako. Gainera gehienetan ilunduta entrenatzen duzu, eta fokoak jarri behar izaten dira txakurrak kontrolatu eta bidean ez kaskarrekorik hartzeko.

Lera txakurrekin txangoak egiten dituzu, baita lasterketatan parte hartu ere. Zer alde dago zeharkaldi eta lasterketen artean?

Kirola bera ez da gehien gustatzen zaidana. Gehien maite dudana zeharkaldiak dira: toki batera iristen saiatzea, txakurrekin mendi gailurrera igotzea, paraje berriak ezagutzea... Zeharkaldietan, gehienetan elur birjina tokatzen zaizu, inork zapaldu gabea. Metro erditik gorako elurra dagoenean, txakurrek ezin zaituzte zu garraiatu, eta nagusiak oinez joan behar izaten du txakurren aurretik!

Lasterketan, berriz, azkar joatea da kontua: txakurrek dena eman behar dute, abailari eutsiz, eta nagusiak (edo musherrak) ere jota bukatzen du. Musherra korrika joaten da denbora guztian, jaitsieretan eta lautadetan bakarrik doa lera gainean. Akabatuta iristen zara, eta bi ordutan ezin zara mugitu ere egin. Horregatik da nahitaezkoa "handlerraren" laguntza: bera da lasterketa bukatzean txakurrak zaintzen dituen, eta lan guztiak egiten dituen.



Zeharkaldiak egiteak gero eta beldur gehiago ematen omen dizu...

Bai, batez ere mendi altuetara jotzeak. Mendian arazoa jaitea da. Igoera, azken batean, gehienetan oinez egin behar izaten duzu, batez ere elur birjina denean. Baina jaitsieretan, elurra gogortzen denean, lera gainean joan behar duzu derrigor, eta irristadetan lepoa jokatzeko gero eta beldur handiagoa dut. Lehenago egiten nituen erokeriak gaur bi aldiz pentsatzen ditut. Gainera zeharkaldietara joateko denbora da behar dudana! Badituz asmo batzuk buruan: behin zeharkaldi bat egin nuen, Aneto inguruan. Tuc de Mulleres mendira igotzea ez nuen lortu, oso izoztuta zegoen eta jaitsierak izutu egiten ninduen. Berrito saiatzeko gogoia dut, ordea, udaberriaren agian, eguraldiak laguntzen badu. Buruan darabilkidan beste ametsa, Mulacenen mendira igotzea.

Lasterketetan parte hartzen duten musher edo gidari denek euren txakur talde propioa dute, edo musherrak kontratatuak dira?

Badira kontratatuak diren musherrak ere. "Kenel" (edo txakurtegi) batzuk oso ezagunak dira dituzten txakur arraza eta taldeagatik, eta lasterketetan lehiatzeko musherrak kontratatzen dituzte. Txakurrak eramateko atleta bat bilatzen dute, lasterketetako profesionala bakarrik dena, forma fisiko onenean dagoena. Azken batean, lasterketa internazionalen euren taldeak postu on bat lortzea bilatzen dute, euren kenelaren izenak sona izatea. Propaganda bidea da.

Atleta ona izanagatik txakur horiekin gertutasuna izan beharko du...

Bai, horregatik pasatzen dute denboraldi bat txakur horiekin entrenatzen eta bizitzen. Sekretua hortxe dago. Azkenean, maila goreneko ekipoak ikusita, ohartzeko zara txakur hauek denak berdina direla, alde bakarra entrenamenduan dagoela, eta musherraren inteligentzia. Txakurrek dena ematea lortzea da musher on baten lana. Txakurrekin konektatzea lortu behar duzu, eta txakurrek zuri ez beldurrik hartzea. Lider ona izatea da kontua.

Zer taktika berezi prestatzen dira lasterketarako?

Batzuetan, lasterketaren azken zatian onenak emateko trebatzen dira txakurrak. Horretarako, entrenamenduetan azken zatira iristen zaren aldiro agindu bat ematen diezu, etengabe. Txakurrek azkenean asimilatu egiten dute mezua: "bukatzeko ari gara". Entrenamenduek ez dute beti luzera bera izaten, txakurrek jakin ez dezaten agindua entzun arte bukatzera doazunik. Taktika hau lasterketarako erabilgarria izan daiteke, baina lasterketan zehar gehiegi erabiltzen baduzu, gehiegitan eman badiezu ibilbidea bukatzera doan abisua, azkenean txakurrek ez dute sinesten benetan azken zatian daudunik, tontoak ez dira-eta. Jendeak halako estrategia akatsak egiten ditu. Lasterketa luzea denean, ezin diezu karrera osoan zehar txakurrei dena emateko eskatu.

Mushing kirola zein egoeratan dago?

Arazoa da oso kirol berezia dela, eta lehiatzeko oso garestia. Lasterketetan parte hartzen duten gehienek ez dute txakur talde bakarra izaten, kenel bat baizik: alegia, txakur sail handi bat, eta hortik aukera egiten dute. Horrek eskatzen du, hasteko, toki on bat izatea 15, 20, 30, edo 100 txakur hartzeko. Gainera, denbora izatea bai txakurrak elikatu eta zaintzeko bai 100 txakurrekin entrenamenduak egiteko. Hori dena gutxi balitz, txakurrak garraiatzeko autokarabana edo furgoneta ekipatuak behar dira (lehiaketetan hotelak ordaintzea garestia delako, eta askotan lehiatze-tokitan azpiegitarik ez delako egoten, mendia edo eski pistak bakarrik). Horrek denak asko zailtzen du kirolean parte hartu ahal izatea.

Federazioa orain urte batzuk sortu zen, eta berari ere garesti irteten zaio lehiaketak antolatzea, beraz, babesleak behar izaten dira derrigor. Azkenean, enpresa pribatuek antolatzen dituzte lasterketak. Gu federazioan neguko kirolen zerrendan gaude, baina zerrendako azkenak gara. Neguko beste kirol asko ekonomikoki egokiak direnez jendearentzat, kirol horiek askoz azkarrago garatzen dira. Gurea beti izango da oso gutxi egiten duen kirola.

Zein dira lera txakurren ezaugarriak?

Lera lasterketek egin dituzte ezagun txakur hauek. Izatez, euren jatorriko herrialdeetan ia agortuta zeuden arrazak dira. Bakan batzuk baino ez ziren gelditzen, eta horietatik errekueratu ahal izan dute arraza. Arraza estandarra mantentzea lortu dute, baina egun, lehiak agintzen duenez eta azkarra izatea denez kontua, jada ez dira txakur "nordikoak" bakarrik ikusten.

Txakur nordiko puruak lanerako txakurrak ziren, hotzerako oso prestatuak, baina lehiarako ez hain onak. Izan ere, lasterketa gehienek azkartasuna eskatzen dute. Gaur egun nagusitu dena, baita herrialde nordikoetan ere, "alaskano" izeneko txakur mota da: txakur hibridoa da, odolean "nordikoen" ezaugarri batzuk eta, batez ere, ehiza txakurren geneak daramatzatenak.

Erresistentzia handikoak dira, ondo entrenatuz gero bide luzean abiadura bizian joateko gai direnak. Traba bakarra hotza dute. Ehiza txakurretik asko badute, hile gutxi izaten dute eta ezin izaten dute hotza jasan. Pirinioetan ez dute arazorik, baina Alpeetan edo Polonian egiten diren lasterketetan, egun hotza suertatzen bada, asko sufritzen dute.

Garrantzirik ba al du txakurraren izaerak? Txakur bakoitzari bere izaeraren araberako kokalekua dagokio leratik tira egiteko orduan?

Bai, jakina. Taldeburua gidari txakurra da, gehien obeditzen zaituen txakurra, eta agindu gehien betetzen dakiena. Mushingean agindu denak ahotsezkoak dira, ez dago ez aho-uhalik ez zigorrik. Beraz, txakurrak nahi badu ahotsari kasu egingo dio, eta nahi ez badu ez. Gainera txakur denek ez dakite ezkerrera eta



Jose Luis Berasategiren txakur nordikoak



eskuinera biratzen. Horrez gain, gidari txakurrak azkarra ere izan behar du, ze gainerakoak baino geldoagoa bada, jaitsieretan txakurrek elkar zapal dezakete. Gainera badira lasterketetan biltzen diren bide ertzeko ikusleei beldurra dieten txakurrak ere. Gauzarik zailena eta denbora gehien eskatzen duena gidari txakur ona heztea da.

Txakur taldean gainerako postuak azkartasunaren arabera dira: zenbat eta azkarragoa den txakurra, orduan eta aurrerago jartzen da, eta bi txakurrik sendoenak leratik hurbilen jartzen dira, horiek direlako gehien sufritzen dutenak. Baina, halere, talderik onenetan txakur ia denak izaten dira azkarrak eta sendoak. Lasterketa denak irabazten dituzten taldeetan, 5 eta 6 gidari txakur ere izaten dituzte!

Txakur taldean, liderrekin arazorik izaten duzue?

Txakur "nordikoak" oso hierarkiakoak dira, eta arazoak izan daitezke. Izan ere, gerta liteke zuk hautatzen duzun liderra euren arteko liderra ez izatea. Baina normalean txakur bera izaten da zure eta euren liderra, eurak jabetzen baitira zuk zein txakurri begiratzen diozun, zeini egiten diozun kasu gehien. Txakur "alaskanoak", berriz, ez dira hain hierarkiakoak, eta ez dira halako arazoak sortzen, euren artean hobeto konpontzen dira.

Asko baldintzatzen duena da, taldean zer sexutako txakurrak dituzun. Nik denak emeak ditut. Ar eta emeak badituzu taldean, emeak arreske daudenean arrak borrokan hasten dira. Gainera nahi ez zenituen kumaldiak etor daitezke. Orokorrean arrak sendoagoak izaten dira emeak baino, baina emeak gidari txakur hobeak dira, agindutakoa errazago betetzen dutenak.

Txakur hauek edertasunagatik oso modan jarri dira Euskal Herrian. Baina pisu batean edukitzeko moduko txakurrak al dira?

Jabearen arabera da dena. Ondo zaintzen dakien jabeak pisu batean ere izan ditzake. Baina etxean bere legea jartzen ez dakienak, edo txakurarentzat denbora gutxi duen jabeak, hobe du halako txakurrik ez izan. Txakur hauek oso basatiak dira, independenteak, beste animalien atzetik ibiltzen direnak, eta batzuetan jan ere egiten

dituztenak. Horri gehitzen badiogu asko ibiltzeko beharra dutela, zaildu egiten da hiriko pisu batean eduki ahal izatea. Hierarkiako txakurrak dira, agintari bat behar dutenak. Baina ehiza txakur gehienek bezalaxe, hauek ere berehala antzematen dizute zer nolako pertsona zaren, eta gaizki heziak badituzu, azkenerako eurak dira agintzen dutenak, eta zu zara katean lotuta dagoena.

Orkolaga kaleko "Bitxos" animalia dendako nagusia zara. Gaurko txakurrak ile-apaindegira eta haurtzaindegira eramaten dituztela ikusiko zenuen. Zer iritzi duzu?

Izatez, etxe batzuetan txakurrak euren seme-alabak bezalaxe dira! Zeurekin bizi diren heinean etxeko bat gehiago dira azkenean. Txakurrek pertsonen antz gero eta handiagoa dute. Albaitariei galdetzen badiezu, gaurko txakurrek guk bezalakoxe gaitzak eta arazoak dituztela esango dizute: hasi txakur diabetikoetatik eta depresioa duten txakurretara! Egia da, baita ere, garai batean txakurrak alergia izanda ere herritarrak ez zirela jabetzen, ez zitzaielako gaurko arreta jartzen. Baina halere, gaur gure bizimodu berera ohitu ditugu txakurrak, askotan etxean guk jaten duguna ematen diegu eurei ere, eta azkenean gure arazo berak dituzte txakurrek. Ile-apaindegira eramatea eta niri ondo iruditzen zait. Zaintzeko modu bat da, eta azkenean bakoitzak ikusi behar du zer tratu izan nahi duen txakurraekin. Kasu okerragoak ikusi izan ditut: txakur handia pisu txiki batean edukitzen duen jendea, edo animalia exotikoegiak edukitzen egoskortzen den jendea, esaterako.